

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2012ko irailaren 28a  
322. zenbakia. 24. urtea



## KAE-1 ligan jaun eta jabe

Orio TKE-San Miguel ligan izango da datorren denboraldian. Mirotzak egindako denboraldiaren balantzea egin dugu KARKARAN.

**05**

**Orioko kontuak**

Aurrekontuak prestatzen

**09**

**Kirola**

Iosu Azkue

**11**

**Aiako berri**

Altxerriko urteurrena

**25**

**Herritarra**

Arrate Plazaola

**azkue**  
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**



Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascarrailagileak@yahoo.es  
BOSIO ORIO

24 ORDEN  
SERBITZUA

- ATAK IMOKIZIEN DITUO
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATAK IXTEKO MALDURKEN ALDAKETAK
- KOMUNITATERITZAKO SERBITZUA

**Orioko Herri Ikastola**



Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**bodegasERRASTI, S. L.**



Eskualderako banatzailea  
Zudugarai, Getariako txakolina-  
llagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gaillar: Señorio de Laurgain  
Gaillar eta Ardandegi,  
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudar, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 03 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

**ITZIAR**

kirolak



Tel. 943 83 31 03

**BARAKA**  
estilo berria

Oziartekoak  
Pintxoak  
Plater konbinatuak  
Etxeko janaria

943 13 13 13  
Aitor

**BERME Aholkularitza S.L.**  
Zerga eta lege aholkularitza

- ENPLAZAMENTUEN AHOULKARITZA
- AHOULKARITZA IRISIA
- AHOULKARITZA JURIDIKOA
- LAN-IRISIAKO AHOULKARITZA
- ENPLAZAMENTUEN AHOULKARITZA
- AHOULKARITZA IRISIAKO AHOULKARITZA

Leizaola Mendizola  
c/ 400 63 09 23

Berme irratia  
943 13 13 13  
S.M. 2008 17  
www.bermeaholkularitza.com



**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agentea

ASEGURUAK

Murgiondo

C C I  
CARASA, CIVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**Gabon**  
TABERNA

plater konbinatuak  
pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

Igo zaituz haize berrietara!

**Galerria**

943890416 677149934  
galerrriaorio@hotmail.com

**GARMENDIA**  
INMOBILIARIA - AHOULKARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

**HAIZE BERRI**  
zaharra-jarduna-kabotage

Plater konbinatuak,  
bobotak,  
hamburgerak,  
pateak,  
eguzko menuak...

SEA TEKNOLOGIA ERABILTZEKO SERBITZUA!

Bida Itzulia, Euzko 1 • 48941 • 943 83 06 09 • 24 orduko zerbitzu

**HIRUTASUN ESENTZIAK®**  
BAT IZATEAREN METODOA®

\*... Irupian, nor zeren ikusita galarazten  
dizuten orotsoen sortura eta  
egonkortasuna kitzeko jarraitu beharriko  
dikoa lantzen dituz maila guztietan!

- Hirutasun Esentziak®
- Eskuen ezartzea
- Oreak energetikoa

Irkus Fernandez  
PINTXUEN TERAPIA  
Tel: 655 726 291

**Goizeko**  
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Leizundri, 33 behean • ORIO  
Autobus parada ondoan

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 • Tel. 943 894 024 • Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**ITSASADARRA, S. L.**  
Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria  
finka administratzailea  
gestoria  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com  
Ibai Ondo 4, behean, 20810 Orio

## Azken Karkaratik bururatutakoak

**1**

Gaztetu egin zaigu  
KARKARA taldea;  
zaharrei, mila esker,  
gazteei, galdea:  
jarri indarra, poza  
ez izan gordea,  
ea pizten duzuen  
herriko kalea  
zain dago kontatzeko  
ho(ge)itabat mendea.

**2**

Karkara gaztetuan  
hartua dut nota:  
Orain Bildu dira ta  
EAJ jota,  
hortxe ari zaizkigu  
elkarri mokoka,  
hori da salaketa  
ta aitzaki sorta,  
norberak ez du errurik  
ta besteei bota.

**3**

Patxada degu berriz  
horien traineran,  
nahiz ta huts egin zuten  
Kontxako banderan,  
aurten ibili dira  
*Segundan* primeran,  
eta haien pareko  
Bkoak *tertzeran*,  
ta laster neskak ere  
mutilen uberan.

322

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**  
Karkara taldea  
kultur elkarte

**Zuzendaria**  
Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**  
Irati Agirreazaldegia,  
Onintza Aiestaran, Iñigo  
Gaiton, Iker Gurrutxaga,  
Eli Lasa eta Idurre  
Lizarralde

**Publizitatea**  
Iker Gurrutxaga

**Publizitatearen diseinua**  
Iker Gurrutxaga

**Testuen zuzenketa**  
Elizabete Manterola,  
Joseba Orella  
eta Rikardo Uzkudun

**Ale honetako laguntzaileak**  
Elena Arrillaga,  
Manu Etxeberria,  
Aiora Larrañaga  
eta Mikel Orbañanos

**Laguntzaileak**  
Iñaki Iturain  
eta Garbiñe Manterola

**Diseinua**  
Karkara taldea

**Banatzaileak**  
Jone Lete eta  
Esti Uranga (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Orioko)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain  
hartzeko aldizkarian  
adierazitako esanien edota  
iritzien erantzukizunik.  
KARKARAN argitaratutakoa  
berreman daiteke, osorik edo  
zatika, baldin eta iturria  
aipatzen bada.



### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko Iker Gurrutxagarekin hitz egin (943 831 527) edo karkara@karkara.com**  
**Prezio hauei BEZA gehituko zaie**

### LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Talde berriari

Eskerrik asko bene-benetan hainbeste urtean KARKARAN jardun duzuenoi; eta zorionak noski, ez baita erraza halako proiektuek aurrera egitea. Irekia, euskalduna, independentea... gozamina izan da etxean aldizkaria irakurtzea.

Lagunen aurrean sarritan aipatu izan dut Orioko herriak baduela herri aldizkari oso duina, KARKARA izenekoa.

Aleren bat eskuratzean bat baino gehiago harritu izan da; herrian arraunlariak bakarrik daudela uste zuten non-bait.

Talde berriari animo eta bidai on!

■ **Imanol Manterola**

## Eskerrik asko

Abuztuaren 19an, Lur-Alkartasuna Kooperatibak bere etorkizunarentzako oso garrantzitsua izango den batzarra ospatu zuen. Garrantziaren tamaina neurtzeko, laurogeita hamaika kidek edo familiartekok igande eguerdi batean bertaratu eta erakutsi zenuten jarrera da seinalerik onena. Honek, laurogeita hamar urte betetzen dituen kooperatiba bizirik dagoela adierazten du. Guzti honengatik eta zuzendaritza osatzen dugun kideon partetik, eskerrik asko.

Zalantza guztiak kendu dizkiguzue. Denok dakizuen bezala, egoera ekonomiko larria daukagu gure gizartean, gure eguneroko bizitzan eta baita gure kooperatiban ere. Horregatik orain dela bi urte hasitako ibilbideari jarraituz, denda berri baten proposamena azaldu nahi genuen eta zuen iritzia jaso. Orain, askoz garbiago daukagu zein den bidea, bertaratutako hiru bazkideetatik bik, zuzendaritza honen proposamena babestu eta gero.

Jakin badakigu horrelako proposamenek kontrako iritzia ere sorrazten dituztela, batzarrean agerian geratu zen bezala; baina hori ere eskertzekoa da, batez ere, modu lasaian eta errespetuarekin adierazten direnean, demokrazia eta gizarte zentzudun baten adierazle gisa. Nahiz eta, zoritxarrez, ez den beti horrela izaten. Bakoitzak bere ondorioak aterako zituen batzarrean ikusi eta entzun genuenarekin.

Batzarreko gaiari helduz, bi aukera ikusten ditugu zuzendaritzan gaude-nok. Batetik, ezer egin gabe kooperatibarekin egungo jardunarekin segi eta Lur-Alkartasunak ekonomikoki, mirari baten ondorioz, arnasa hartu eta gora egitea; edota egoera ikusirik, orain dela laurogeita hamar urte gure aurrekoek egin zuten bezala, ausardiaz eta denon

## Akatsak zuzenduz

321. Karkaran bada zuzendu beharreko kontu bat, gutxienez: *Ez-palak* saileko jaiotakoak, ezkontutakoak eta hildakoak atalean gaizki jarri genituen jaiotako asko eta askoren datak. Jaio zireneko eguna jarri ordez, Udalean erregistratu zireneko data jaso genuen. Hemen zuzenduta:

- Markel Etxeberria Urkizu, Orion, irailaren 1ean.
- Unai Bueno Tamayo, Orion, abuztuaren 14an.
- Axier Manterola Garrido, Orion, abuztuaren 12an.
- Aiora Rodriguez Masa, Orion, abuztuaren 12an.
- Aitana Ordoñez Penco, Orion, uztailaren 28an.
- Peru Eizagirre Iruretagoiena, Orion, uztailaren 26an.
- Ahmed Salek, uztailaren 16an.
- Malen Eskudero Leunda, Orion, uztailaren 12an.
- Aiala Bidasoro Gaztelumendi, Orion, uztailaren 10ean.
- Anuxka Peña Arabaolaza, Orion, uztailaren 8an.
- Eliot Denay Anrango Peña, Orion, uztailaren 3an.
- Hodei Uranga Etxeberria, Orion, uztailaren 3an.
- Mikel Fombellida Puertas, Orion, ekainaren 27an.
- Iban Arrillaga Azpiroz, Orion, ekainaren 18an.
- Luken Perez Uriarte, Orion, ekainaren 15ean.
- Aiora Amonarriz Huegun, Orion, ekainaren 14an.
- Markel Tejado Castelo, Orion, ekainaren 12an.
- Iker Tejado Castelo, Orion, ekainaren 12an.

Barkatu okerrak.

laguntzarekin, aurrera pauso bat eman, hau da, gizartearen egungo beharretara egokitutako denda berri bat eraiki.

Dударik ez dugu errazena lehenabizikoa izango litzakeela, eta miraririk gertatu ezean, kooperatibak ondo jartzzen duenean, finikitoa sinatu, ondasunak saldu, zorrak ordaindu eta norbaitek denda txikiren bat ireki dezan esperantzarekin gelditu.

Hori ezin dugu onartu. Gure lana eta denbora gehiago bideratu behar baldin baditugu ere; mila bilera egin, idatzi edo ate jo behar badira ere, zuzendaritza hori osatzen dugun herritarrok aurrera jarraituko dugu, gure aurrekoek bezala, Aiako herria maite dugulako eta herri osoa nahi dugulako. Gainera, bazkide eta herritarrengandik jaso dugun babesa kontutan hartuta, are eta indar handiagoarekin jarraituko dugu gure helburua lortu arte: denda berri bat egin arte.

Zabalik gaude bazkide guztien iritzia eta proposamenak entzuterara, aztertzerara, baina, beti ere garbi izan da zein den gure helburua eta batzarrak eman digun agindua.

Ez dugu zertan izan etorkizunaren beldur, izan gaitetzen gure aurrekoak bezala; gure aiton amonek izan zuten adorea eta lana egiteko kemena berreskuratu ditzagun. Beraz, animo bazkide eta herritar guztiok, denon artean proiektu berria aurrera eraman behar baitugu, eta Kooperatiba gure herritarren zerbitzura mantendu, beste laurogeita hamar urtez.

Besterik gabe, jaso ezazue agur bero bat. Eskerrik asko! ■ **Lur Alkartasuna Kooperatibako zuzendaritza**

## Euskal dantzen ikastaroa

Ikasturte berriarekin batera, aurten ere gure saioekin hasiera goaz. Kontu izan, 18 urtetik gorako edonork parte hartu dezakeela Fandangoa, Arin-arina, Murtzikoa, Larrain-dantza, etabar ikasten.

Ikasturtearen hasiera urriaren 3an izango da. Gaueko 9etan elkartuko gara, Kosta Tailerrean. ■ **Talai Mendi, M.A. Helduen Dantza Eskola**

# Herritarrekin elkartuko da Bildu aurrekontu-proposamena egiteko

Auzoz auzoko bilerak egingo dituzte lehendabizi Bilduko kideek; taldekako batzarren txanda izango da gero; eta behin horien ekarpenak jasota, Udaleko ordezkariari aurkeztuko zaie proposamena

2013. urterako aurrekontu proposamena udal batzordeari aurkeztu aurretik, oriotarren kezka, arazoak eta zeresanak jaso nahi dituzte Orioko Bilduko bost zinegotziek. Horretarako, *Zure ahotza, gure hitza* lelopean, bost bilera deialdi egin dituzte, gaia auzoz auzo jorratzeko. Urriko eta azaroko larunbatetan egingo dituzte batzar guztiak, Kultur Etxean, 10:00etatik 12:00etara.

Plaza eta Bikamiota arteko herritarrentzat izango da lehenengo bilkura urriaren 6an; Hondartza ingurukoentzat bigarrena, urriaren 13an; Goiko Kaleko bizilagunentzat, hilaren 20an; San Martin bailarakoentzat, 27an; eta azkena, azaroaren 3an, Dike inguruko –Anibarko Portua, Mutiozabal...– herritarrentzat.

Bilduko bina zinegotzi izango dira auzoz auzoko bilera bakoitzean, herritarren proposamenak jasotzeko. Jon Agirresarobe Bilduko zinegotziaren esanetan, ez dira soilik keak jasotzeko bilerak izango: *auzoko edota herriko arazo garrantzitsuenen irtenbidea elkarrekin bilatzen saiatzeko bidea izango da, keak jasotzeko tokia ere baden arren.*

Aurrekontu-proposamena eratzeko lehen prozesua horrekin bukatuko du Bilduk. Lehentasunak, alegia, ikertu eta konponbidea emateko behar gehien duten arazoak, bilkura horietatik aterako dituela aurreikusten du koalizioak. Gai batzuek momentuan bertan izango dute irtenbidea, baina ez beste batzuk. Gehiena errepikatzen diren gaiak eta gutxiak zein... hori dena ikusi beharko da Agirresaroberen hitzetan.

## Herritarretatik eragileetara

Auzoetako proposamen eta iradokizunak jasota, herriko eragileekin bilduko dira ondoren, aurrekontuak osatzeko bigarren pauso gisa. Azaroaren 10ean, 10:00etatik 12:00ak aldera arte, elkartuko dira kultur-, kirol-... taldeekin, Kultur Etxean. Talde-dinamiken bidez egingo dute lan zinegotziek eta herriko taldeetako ordezkariak.

Auzoz auzo egindako bileren ondorioz jasotakoaz aparte, gaikako ikuspegia emango die bilera horrek Agirresaroberen ustez. Horrela aurrekontu-proposa-



Bilduko zinegotziak Kultur Etxean egindako aurkezpenean. KARKARA

men parte-hartzailea prestatuko dutela espero du zinegotziak.

## Udal-batzordera aurkeztea

Bilerak, eztabaidak eta lanak uste bezala joanez gero, azaroaren erdi alderako aurreikusten du Bilduk Udala osatzen duten gainerako alderdiei aurrekontu-pro-

## Auzoetako proposamen eta iradokizunak jasota, herriko taldeekin bilduko dira Bilduko 5 zinegotziak, aurrekontuen proposamena lantzeko

posamena aurkezteko bilera.

Behin dokumentua mahaigaineratu denean, auzoz auzoko eta herriko taldeekin egindako bilerek utzitako emaitzak jendaurrean jarriko ditu Bilduk.

Bilduko araberak, horrek behar du izan aurrekontuak parte-hartzaile egiteko prozesua. Iaz ez zuten horretarako denborarik izan, eta aurten, lanari heldu diote, leloak dion bezala, herritarren hitza beren ahots izatea nahi dutelako.

## AURREKONTU-PROPOSAMENA OSATZEKO BILERAK

### Auzoz auzo

**Urriaren 6an:** Plaza eta Bikamiota  
**Urriaren 13an:** Hondartza  
**Urriaren 20an:** Goiko Kale  
**Urriaren 27an:** San Martin bailara  
**Azaroaren 3an:** Dike aldea: Anibarko Portua, Mutiozabal...

### Taldea

**Azaroaren 10ean:** gaikako talde-dinamikako bilera, herriko eragileetako ordezkariekin.

**Bilera guztiak Kultur Etxean dira, 10:00etan hasita.**

### Udal-ordezkariekin

**Azaroaren erdi aldera:** batzarrean Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) alderdiari eta Orioko Aukera Independentea (Orain) plataformari aurkeztuko diete Bilduko ordezkariak 2013. urteko aurrekontu-proposamena.

# DBHko ikasketak eskaini ahal izateko sei gela berri izango ditu Zaraguetak

Hezkuntza Sailak eskatutako lekuari dagokion baldintza beteta, DBH 2013-2014 ikasturterako martxan jartzeko idatzizko konpromisoa hartu du Eusko Jaurlaritzak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eman ahal izateko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jarritako baldintzak betetzeko bidean da Zaragueta Herri Eskola, ikasgela gehiago egiteko lanak hasita daude-eta. Uztailearen 10ean ekin zion *Antiak* gaur egungo eraikina mendi aldera handitzeari. Horrela, sei gela -bina solairuko- berri izango ditu eskolak.

Abendua hasterako bukatuta egon be-

harlukete lan horiek. Ondoren, Zaragueta zuzendari Juanjo Zubizarretaren hitzetan, DBH jartzeko pausoak ematen hasiko dira Hezkuntza Saila eta eskola elkarlanean. Landuko diren hautazko irakasgaiak zein izango diren, irakasleak zein baldintzatan izendatuko diren eta nork eramango duen ikastetxe berriko kudeaketa erabaki beharko dituzte, besteak beste.

Horrez gain, eskola berrantolatuko dute: 2 urteko haurrentzako izango dira beheko solairuko bi gela berriak. Sarre-ira-irteera independentea izateaz gain, gaur egungo baliabideekin egokitutako espazioak izango dira; Lehen solairuko gelak, ere, Haur Hezkuntzara bideratuko dira; eta goiko solairua, DBHrentzat izango da. Eraiki berri den geletako batetik, gainera, esku-lanak egiteko tailerra hartuko du. Gainerakoan, Bigarren Hezkuntzako lerroa jartzeko beharrezko diren informatika-gela eta laborategia badiitu lehendik eskolak.

Zubizarretak adierazitakoaren arabera, lanak bide onetik joanez gero, datoren ikasturtean martxan behar luke Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak Zaragueta.

## Jaurlaritzaren konpromisoa

Ekainean bildu zen Orioko Udala Eusko Jaurlaritzarekin, Zaragueta Eskolako proiektu berria hizpide hartuta. Bertan, idatzizko dokumentu batean jaso diren zenbait konpromiso hartu zituen Hezkuntza Sailak: Aiako ikasleei orain arteko mapa eskolarra ez aldatzea; 2013-2014 ikasturterako DBH berria martxan jartzea; eta hezkuntza lerro berriko mantenu gastuak beregain hartzea.

Urriaren 21ean Eusko Legebiltzararako hauteskundeak izango dira eta Gobernu aldatzeko aukeraz galdetuta, Zubizarretak dio Hezkuntza Sailaren arabera, erabakia irmoa dela eta ziur daudela aldaketa politikoek ez dutela eraginik izango. Ez omen du atzera bueltarik.



Abaromendi aldera ari dira handitzen Zaragueta Eskola. KARKARA

## LABUR

### Ekonomia

#### Orio eta Aia zorrik gabe

Urte hasieratik hona, 17 milioi eurotan gutxitu dute zorra Gipuzkoako 88 herrietako Udalek. Oro har zorrek behera egin badute ere, 13 Udalen zorrak handitu egin dira eta 12 baino ez dira zorrak hutsean dauzkatenak. Hamabi herri horien artean daude, hain zuzen ere, Orioko eta Aiako Udalak urtea hasi zenetik zorrik ez izateaz harro agertu daitezkeenak.

### Turismoa

#### Argiteria sistema berritzailea

*Luix* enpresak sortutako argiteria sistema berritzailea jarri du Orioko Udal Kanpinak uda honetan, energia elektrikoa aurreztu eta kanpinaren zerbitzuak hobetzeko. Besteak beste, eguzki-argiaren eta orduaren arabera kontrolatuko dute argi-intentsitatea kanpineko arduradunek, gastua %80 jaitsiz. Horrez gain, wi-fi kanpin osora zabaltzeko ere baliatu dute argiteria-sarea. Argi farolek wi-fi-errepikagailu gisa funtzionatzen dute, eta, hortaz, Udal Kanpineko edozein lekutatik konektatu daiteke sarera.

### Jendartea

#### Berdintasunerako diagnostika

Orioko Udalak, emakumezkoen eta gizonezkoen benetako berdintasuna lortzeko asmoz, diagnostika abian jarri du, *Murgibe* aholkularitzaren laguntzarekin. Helburu nagusia da: herriko berdintasun egoera zein den identifikatzea. Horretarako, bilera, elkarrizketa eta biztanleen topaketak egingo dituzte, baita Udaleko langileei eta erakunde eta elkartei galdetegiak pasa ere. Hiru hilabete beharko dira diagnostika egiteko eta baliagarria izango da, gero, Berdintasunerako Planean zer lan ildo jarraituko den zehazteko.



Pianoa eta bertsoa uztartu dituzte Egañak eta Lizasok. KARKARA

## Bi arreba ikuskizuna aurkeztu dute Andoni Egaña eta Xabier Lizasok

Xenpelar-en bertso jarriak kantatuko ditu Egañak ikuskizunean eta Frederick Chopinen piezak pianoz jo Lizasok. Okasiorako bertso jarriak eta inprobisatuak ere izango dira musikaz lagunduta

Xabier Lizaso piano-jotzaile oriotarrak eta Andoni Egaña bertsolari zarauzta-rrak laster eskainiko dute *Bi arreba* ikuskizuna. Chopin musikariaren zalea da Lizaso; Egañak *Xenpelar* bertsolaria du gustuko eta emanaldiaren hari gisa bi horien antzekotasunak baliatuko dituztela esan du Egañak: *biak ziren garaikideak, bakoitza bere arloan artista handiak, berri-zaile doinu eta neurri berezietan, katolikoak, estaturik gabeko nazioetakoak, hizkuntza propiodunak eta garai politiko gatazkatsuak bizitakoak*. Antzekotasun horiez gain, Egañak dio detaile txiki batetik sortu zuela biak uztartzeko *txispazo* eta hortik datorrela izenburua ere; biak hil ziren gazterik, gaixoaldien ondorioz. Eta heriotza orduan, biekizan zuten ondoan arreba.

### Lehengusuaren proposamena

Xabier Lizasok eta Andoni Egañak ere ez zuten topo egin proiektu honekin hasi arte. Iaz, Xabier Lizaso oriotarra, bere lehengusu Jose Luis Loidik animatuta, bertsolaritza eta pianoa uztartzeko proposamenarekin joan zen Lankura, bertsoa oinarritzat hartuta, kultur ekitaldiak sortu eta antolatzen dituen enpresara. Andoni Egaña eta Xabier Lizaso harremanetan jarri eta hortik sortu zuten *Bi arreba* ikuskizuna.

Lizasok adierazi du bertsoak gustuko izan arren, sekula ez duela bertsolaritzarekin gertuko harremanik izan, beraz, gogoz egin duela proiektuarekin aurrera. Pianoa lagun, emanaldi didaktikoak ematen ditu gaur egun eta jende berria ezagutu eta horiek musikaren beste

ikuspuntu bat dutenez, horretatik asko ikasi duela dio. *Kontserbatorioa oso mundu itxia da, goi mailan aritzeko prestatzen gaituzte eta hortan ari garenean ez gara ohartzen bizitzan zenbat ate ixten zaizkigun*. Lehengusuak proposamena egin zionean umeeikin hasi zeneko hura etorritzaion gogora eta harrituta gelditu da, *entseguetan ikusi ditudalako bertsolarien beharrak, esaterako, zenbat kostatzen zaien tonua hartzea, sekula pentsatuko ez nukeena. Disfrutatzen ari naiz bertsolaritza ezagutuz*.

Bakoitzak bere mundua elkarri azaldu ahala, berehala sumatu zuen Egañak Lizasoren gustuko konpositorea Chopin zela eta Xenpelarrekin lotu zuen. *Nik uste dut horren meritua Egañak berak duela, haria berak lotu baitzuen nik esandakoekin*, dio Lizasok.

### Piano eta bertsoekin aluzinatzen

Emanaldira joaten direnek zerekin topo egingo duten azaldu du Andoni Egañak: *kontakizun batek eramango du haria eta Xabierrek Chopinen obra batzuk joko ditu hari horren aitzakian. Nik, Xabierren laguntzaz, Xenpelarren bertso jarriak kantatuko ditut. Okasiorako bertso jarriak ere egingo ditut ildo narratiboarekin ondo datozenak edo herri bakoitzera-ko propio eginak*. Inprobisaziorako tarte bat ere utziko dute, *bertsolaria inprobisatu gabe ez baita lasai sentitzen*, dio Egañak. Bertsozaleek pianoarekin *aluzinatzea* espero du, baita pianozaleek bertsolaritzaren gertuko ikuspegi bat jasotzea.

Lizaso oriotarra izanik ikuskizuneko doinuak Orion entzuteko aukera izango da, egunazehaztu gabe badago ere. Bitartean, azaroaren leian Bilboko Eliseos Antzokian, 22an Andoaingo Basteron, abenduaren 12an Bilboko Deustu auzoan eta 15ean Errenteriako Niessen kultur-gunean.



Prestaketa saioetan gogotsu dabilta neska-mutilak, Mendibeltzen. KARKARA

# Bost talderekin hasi du denboraldia Orioko Futbol Taldeak

Lehen partida jokatu dute gizonezko seniorrek, jubenilek eta kadeteek; datorren hilaren 30ean hasiko dute denboraldia Ohorezko Mailako infantilek eta 1. mailako kadete-emakumeek

Regional kategoriako neskena desegin da, talde bat gutxiagorekin hasi du aurtengo denboraldia Orioko Futbol Taldeak. Izan ere, jokalariek batzuk herritik kanpora joan dira eta beste batzuk, berriz, utzi egin diote futboleko jokatzeari; ondorioz, kategoria horretako nesken taldea osatu ezinda geratu da aurtentzat.

Jarraitzen dutenak, ordea, asko eta asko dira oraindik. Denboraldia hasi dute horietako batzuk, gizonezkoak denak. Jardunaldi bakarra jokatu dute, oraingoz, Preferente mailako mutilek eta Ohorezko Mailako jubenilek eta kadeteek. Txukun hasi dute denboraldia nagusienek, Astigarragako Mundarriori 1-0 irabazi eta hiru puntu lortuta. Jubenilek, aldiz, Lagun Onak taldearekin neurtu zituzten indarrak eta kontrarioak gailendu zitzaizkien, 1-3.

Jokatutako beste lehiari dagokionez, puntu bati eutsi zioten gaztetxoek Mendibeltzen: bana egin zuten Astigarraren aurkako norgehiagokan. Mo-

mentuz, 10. daude sailkapen orokorrean.

Gizonezkoekin bukatzeko, Ohorezko Mailan arituko dira infantilak, irailaren 30etik aurrera. Internacional taldea hartuko dute etxean.

Emakumezkoetan talde bakarra izango da, hortaz, eta kadeteen 1. mailan jokatu dute, irailaren 30ean hasita. Alerru izango dute aurkari aurreneko partida horretan.

## Herritik kanpo

Futbol ibilbidean gora eta gora doa Ainaera Manterola oriotarra. 16 urtez azpiko kategoriatan behin baino gehiagotan egon bada ere, 19 urtez azpiko kategoriako Espainiako Selekzioarekin aritu da irailaren 24tik 26ra, aurreneko aldiz. Madrilgo Las Rozaseko instalazioetan egin ditu hiru egun, gainerako taldekideekin kontzentratuta.

Bestalde, Iker Torrek eta Iosu Esnaolak talde berean jokatu dute denboraldi honetan, Nojan, Kantabrian.

## LABUR

### Saskibaloia

#### Lehenengoan garaipena

Hirugarren urtez martxan jarri dira Alustiza Autobusak Orioko taldeko mutilak. Estraineko partida Beasainen jokatu zuten Arri-BKL taldearen aurka, eta, 48-69 irabazi zuten. Taldeak ez ditu aldaketa gehiegi izan iaztik hona, eta, iazko emaitza, gutxienez, berdintzea izango dute helburu. Datorren partida Orion jokatu dute, irailaren 29an, 16:00etan. Horiez gain, beste 6 talde izango dira aurtenguean. Batzuk hasi dituzte partida ofizialak; beste batzuk lagunartekoak jokatzen ari dira. Bestalde, Euskal Ligako kadete neskek galdu egin zuten Durangon Tabirako taldearen aurka 56-31. Taldean aldaketa ugari izan dituzte eta gogorra da Euskal Liga. Larunbatean, 11:00etan, jokatu dute etxeko lehen partida, Araba taldearen aurka. Azkenik, errendimenduko junior neskek bigarren partida jokatu zuten Bera-Bera talde donostiarren aurka, eta, lau puntuz irabazi zuten. Gauzak horrela, bitik bi garaipen eskuratu dituzte, eta, sailkapeneko lehen tokian daude. Datorren partida La Salle-Astigarraga taldearen kontra jokatu dute, kanpoan. Gainerako taldeek lagunarteko lehiak jokatu dituzte eta urriko bigarren hamabostaldian ekingo diete partida ofizialak jokatzeari.

### Arrauna

#### Kortak eta Orbañanosek berritu

San Miguel ligan lehenengo bi postuetan izan dira Kaiku eta Hondarribia hurrenez hurren. Joxe Luis Korta eta Mikel Orbañanos izan dira haietan prestatzaile lanetan. Aurreko astean jakinarazi zuten beren klubekin zuten kontratua berrituko dutela bi prestatzaileek. Beste bi urtez, 2014ra arte, jarraituko du Joxe Luis Kortak Kaikuko entrenatzaile izaten; Mikel Orbañanosek, berriz, urtebeterako sinatu du.

### Pilota

#### Frontenis txapelketa martxan

Irailaren 28an ziren hastekoak Orioko Frontenis Txapelketako partidak, baina, asteburu horretan gazte festak direnez, urriaren 5era atzeratu dituzte frontoiko norgehiagokak. Jende askok hartuko dute aurtentzat parte. Iazko bikoteek maila polita erakutsi zutela adierazi dute antolatzaileek, eta, aurtentzat, ostiralero, pilotalekuan ikuskizuna ziurtatuta izango dela gaineratu du Eneko Galarragak pilota elkartearen izenean.



# “Bizikletak kateatu egin nau, eta orain *master* bat edo beste egin nahi dut”

## Iosu Azkue

Zikoturista

Zizurkilen jaio zen duela 34 urte Iosu Azkue, baina Andatza auzoko odola ere badu, aita Aristerrazukoa baita. Zizurkildik Aiara etorri zen bizitzera duela 12 inguru urte, eta handik Oriora, errepideko bizikletan ibiltzen hasi zen herrira

### IKER GURRUTXAGA

Zazpi urte eskas daramatza Iosu Azkuek errepideko bizikleta gainean. Mendiko bizikletan ibiltzen zen ordura arte, baina errepidean lortutako emaitzak ikusita, horri eskaintzen dio denbora gehiena.

#### Noiz hasi zinen bizikletan?

Errepideko lehen bizikleta 2005ean erosi nuen, eta, 2006ko ekainean, *Quebrantahuesos* proba egin nuen. Beraz, orain beteko dira zazpi urte nire lehen *Look* bizikleta zaharra erosi nuenetik.

#### Hasiera gogorra izango zen, ezta?

Eneko Gonzalez eta Iñaki Gurrutxaga izan nituen lagun hasiera hartan. Haiek denbora gehiago zeramaten bizikleta gainean, eta beti arrastaka ibiltzen nintzen haiei segika. Ez zen samurra izan garai hura.

#### Baina gerora prestaketa serio hartu zenuen.

Korrika hasi nintzen lehendabizi, eta mediku batek esan zidan meniskoa ez neukala oso ongi eta bizikletan ibiltzeko. Hasi eta urtetik urtera nire burua hobeto ikusten nuen bizikleta gainean, eta erabaki nuen prestaketa zaintzea. Urtean lauzpabost proba izaten ditut buruan, eta gainontzekoak prestaketa lanetarako erabiltzen ditut.

Udan bizikleta gainean pasatzen ditut orduak, eta beti izaten da inguruan lagun bat harekin joateko. Negua gogorra goa izaten da, argi-ordu gutxiago izaten ditugulako. Kiroldegiko muskulazio gelan pisuekin eta bizikletarekin egiten dut lan. Errepidean bi orduz-edo jarduteko aukera izaten dut, baina bakarrik askotan. Aspergarriagoak diren arren,

horiek izaten dira entrenamendu onenak.

#### Orion nabarmen egin du zikloturismoak gora, ezta?

Bai, hala da. Ni hasi nintzenean aurrez aipatutako lagunez gain, betidanik ibili direnak eta gutxi gehiago ginen. Orain, berriz, talde handia da Oriokoa. Hala ere, helburu desberdinak ditugun pertsonak gara eta ez gara askotan ibiltzen batera.

#### Helburu desberdinak aipatuta, postu onak lortu dituzu aurten.

Halaxe izan da. Aurreko urtetan *Lagos de Covadonga*, *Larra-Larrau* eta *Quebrantahuesos* probetan denbora onak egin nituela ikusita, aurten ere halako zerbait egin nahi nuen. Horiez gain *Irati Xtreme* proba ere urtero begiz jota izaten dut.

#### “Taldea handia da Orioko zikloturistena. Hala ere, helburu desberdinak ditugun pertsonak gara eta ez gara askotan ibiltzen batera”

“Helmugan ezin izan nion negarrari eutsi. Bizikletan izandako momentu latzez gogoratu nintzen eta egin nuena sekulakoa zen niretzat”

Baina aurten ez dut zorte onik izan denboraldiaren lehen zatian. Eroriko bat izan nuen Asturiasen, Covadongako proban eta uda arte ezin izan dut bizikleta berriz hartu. Udan Espainiako Itzuliko etapa gogorrena egin genuen martxa batean, eta 4. izan nintzen *Cuitu Negro*ko helmugan. Atzetik *Larra-Larrau* egin nuen eta 7. iritsi nintzen hango helmugara. Sekulakoa izan zen hori niretzat, iritsitakoan ezin izan nion negarrari eutsi. Bizikletan izandako momentu latzez gogoratu nintzen eta egin nuena sekulakoa izan zen niretzat.

#### Behin hori lortuta, zein da hurrengo helburua?

Bizikletak kateatu egin nau, eta orain *master* bat edo beste egin nahi dut. Jende oso ona ibiltzen da hor, profesionala izan zitekeena, baina hainbat arrazoigatik bidean geratu direnak. Hortik aurrera, aipatutako proba *kuttunak* egingo ditut. Urtetik urtera hobetzea da dudan helburu bakarra, beti ere erokeriarik egin gabe, nire burua zainduz.



PAUTXO

## Mende erdi da Altxerriko kobazuloko grabatuak aurkitu zirela

Mendeurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu urrirako Udalak: besteak beste, leizea aurkitu zutenak, eta, Altxerri Giza Ondare izendatzeko lan handia egindako arkeologoa omenduko dira

50 urte pasa dira Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek Altxerriko kobazuloko grabatuak aurkitu zituztenetik. Leizea, berez, eta kasualitatez, 6 urte lehenago topatu bazen ere, Aranzadiko Felipe Aranzadi, Jabier Migliazzio eta Juan Kruz Bikuña izan ziren, galerian leizeak zeudela entzun, eta, haitzulora sartuta, Paleolito Goiko garaiko labar-pinturak aurkitu zituztenak.

Aurkikuntza haren garrantzia azpimarratu nahi izan du Aiako Udalak urteurrenean, eta zenbait ekitaldi antolatu ditu horretarako: urriaren 9an, 19:30ean, inauguratuko da, esate baterako, Altxerriko kobazuloa ardatz hartuta jarriko den erakusketa. Leizeari berari buruzko historia eta horrenbeste urtez ezkutuan izan duen edukia jasoko dituzte erakusketan bertan egongo diren askotariko lanek. Kultur etxean izango dira lanakikusgai, urriaren 28a arte, goiz eta arratsaldez astegunetan, eta, 11:30etik 14:00etara asteburuetan.

### Omenaldia aurki

Azaroaren 8an jai berezia izango da Donostiako Victoria Eugenia antzokian: alde batetik, W.Herzog alemaniarren *Cave of Forgotten Dreams – La Cueva de los Sueños Olvidados* dokumentala aurkeztuko du Juan Luis Arzuaga paleontologoak. Frantziako Chauvet kobazuloko irudi ikusgarriak jaso zituen Herzogek bere kamerarekin.

### ZENBAKIA

# 120

**Irudi.** Altxerriko kobazuloan aurkitu diren pintura eta grabatuak horietatik dira: 120 inguru. Horietatik gehienak animalienak dira: 92, hain zuzen ere. Bisontea agertzen da gehienbat; gainerakoan, arrainak –platuxa, urraburua...-, oreinak, azeriak, zaldia, ahuntzak... gordetzen ditu leizeak.

Bi omenaldi ere izango dira egun horretan: kobako irudiak aurkitu zituzten Aranzadiko kideak omenduko dira aurrena; ondoren, Jean Clottes arkeologoari egingo zaio gorazarre, Ekaingo eta Santimamiñekoekin batera, Altxerriko kobazuloak ere Giza Ondare izendapena jasotzeko lan handia egin duelako.

Horrez gain, gaian adituak diren Aranzadiko kideek egindako Altxerri buruzko liburua ere argitaratuko da, oraindik noiz izango den zehazteke badago ere.

Lardizabal eskolako umeek ere hartuko dute parte mendeurreneko ospakizunetan: besteak beste, zenbait tailer egingo dituzte garai bateko ehiza, labarrak eta abar nolakoak ziren ezagutzeko.

### 1956an bistarazia

Olaskoegia auzoa eta Orio lotzen zituen errepidea egiteko kareharria behar, eta Altxerri baserriaren inguruan harrobia egin zuten, 1956an. Harria ateratzeko leherketa baten ondorioz geratu zen bistan metro bat zabal eta 80 cm luze zen zuloa, galeria bat agerian utziz.

Aurkikuntzaz geroztik itxita dago Altxerriko kobazuloa, barruan gordetzen duen altxorra gal ez dadin.



Borobilduta eta X batekin markatuta, Altxerriko sarrera. PEDRO DIAZ DE GONZALEZ



Txabolen inguruko zelaietan elkartzen dira mendizaleak. ETX KULTUR ELKARTEA

## Kupela taldea arituko da igandean Ernioko azken erromeria alaitzen

Ernio magalean, Zelatunen, dauden txaboletako arduradunek antolatzen dituzte iraileko erromeriak. Mendia inguratzen duten zortzi herrietatik, jende asko joaten da, baita Aiatik ere.

Ernio magalean, Zelatungo lepoan, erromeria izaten da iraileko igandeetan. Mendi gailurrera igo ondoren, eguna Zelatunen pasatzen du askok, trikitixa doinuak, hango bordetako janaz edo bakoitzak eramandako bazkariak gozatuz.

Erromeriak noiztik egiten diren zehatz ez badago ere, urte asko dira Zelatungo lepoan, jai giroan, inguruko herrietako jendea elkartzen dela.

Eguraldi iragarpena ez da ona igandeko, irailaren 30erako, baina aurtengo azkena izanik, erromeriarik ez dela faltako jakinarazi dute. Zelatunen aritzen dira batzuk dantzan; egunpasa besteak. Euria eginez gero, trikitixa doinuak txabola barrura eramango dituzte.

Kupela taldea arituko da azken igandean goiz eta arratsalde. 11:30ean hasiko dute saioa eta bazkal orduan, 14:00etan, atsedena egin ondoren, 16:00etatik 18:00etara jarriko dute dantzarako giroa. Mendizale eta erromeria-zale aiarentzat zein ingurukoentzat hitzordu berezia izango da igandean Ernio.

### Urte asko Erniora

Mendia inguratzen duten zortzi udalerrietako –Aia tarteko– herritarrek Erniozaleak elkarte osatu zuten 1997an, tontorrean dagoen gurutze handiaren 50. urteurrenean. Izan ere, jende askok du Ernio tontorrera igotzeko ohitura, batik bat iraileko igandetan, baina urte osoan izaten da joan-etorria.

Aia Ernio mendiaren magalean egonik, herritarrek betidanik izan dute harako joera; mendira joateko irteera berezirik antolatu ez arren, Ernio gailurrera eta Zelatunera iraileko iganderekin batean zein bestean joan izan denak, aurten ere, aiarren batekin topo egin duela esan digu Isidro Lertxundi mendizale aiarrak; txaboletako arduradun batek ere iritzi bera du.

Zelatunen bi txabola daude eta txabolazaleak dira, hain zuzen ere, iraileko erromeriak antolatzen aritzen direnak. Aurten, iraileko aurreko hiru igandetan eguraldi ona egin duenez, jende asko animatu dela esan digute.

## LABUR

### Turismoa

#### Iturran eta Agorregira bisitak

Udan Aiako turismo eskaintza ezagunak arrakastatsuak izan dira aurten. Uztaillean eta abuztuan Iturranera 3.192 bisitari joan dira, Agorregiko burdinola eta errotara 3.858 eta txangoetan 949 lagunek hartu dute parte. Aurten, gainera, lehen aldiz, egun jakinetan, erlategira bisitak antolatu dituzte eta 949 horietatik 651 izan dira han. Gustura daude, beraz, Arreta Pagoetakoak, iaz baino 1.856 bisitari gehiago hartu baitituzte.

### Ikastaroak

#### Goiz Argin eskulanak

Helduentzako eskulan ikastaroak izango dira Goiz Argi aretoan urriaren 2an hasita. Astearteetan hari lanak egiteko aukera egongo da eta ostegunetan bes-telako teknika eta materialekin jardungo dira: egurrez, metalez, eskaiolaz, oiha-lez... egingo dituzte eskulanak. Saioak 15:00etatik 18:00etara bitartean izango dira. Ikastaro bakoitzak 50 euro balio du eta ordainketa bi zatitan egin daiteke. Gi-puzkoako kutxan -2101 0027 31 000 4156055 zenbakian diru-sarrera egin eta udaletxean ordain-agiria aurkeztuz egin beharko da izen-ematea.

## Krisia dela-eta



ure herria oso egokia da krisi garaian bizi izateko. Herriar gehienek baratzea dute edo soroa daukan lagun bat ezagutzen dute.

Abereak ditu edo ezagunak dauzka abereekin. Horrek esan nahi du era merke batean janaria lortzeko bidea dugula. Ohitura batzuk aldatu beharko ditugula, ezin da ukatu.

Oporrak ditugunean posible da kanpora joateko aukerarik ez izatea, baina ez da beharrezkoa oso urrutira joatea ondo pasatzeko. Arropa gutxiago erosteko aukera izango dugu; baina azkenaldi honetan, hileko egun bakoitzean arropa ezberdina janzteko modua egoten da gure armarioetan, eta horrek esan nahi du biluzik ez garela joango.

Ez dugu jatetxeetan afalduko edo bazkalduko; etxean egin beharko ditugu. Lagunak gonbidatuz gero, giro polita lortu daiteke, gainera.

Etorkizuna nahiko beltz ikusten dut, baina oso ondo ohituta geundela egia da. Txarretik onera erraz egiten dugu, eta onetik txarrera gehiago kostatzen zaigu. Edozein modutan, nire ustez, oso ondo bizi ginen eta tarte handia dugu oso gaizki bizitzera iritsi arte. Horra heldu baino lehen buelta etorriko delakoan nago.

Garaiotan jende arteko hartu-emanari

eustea garrantzitsua izaten da, eta horrek kezkatzen nau. Azkenaldian jendea haserre ikusten dudalako. Ezinezkoa da denon gustura egitea, baina errespetua ez da galdu behar, nahiz eta gure iritzi berdinekoa ez izan.

Kooperatiba non kokatu erabakitzeak sortzen ditu arazo hauek. Plazan gelditzearen alde nago ni, herriko giroarentzat hobea delako; baina ez naiz kooperatibakidea. Izango banintz, ez dakit iritzia bestelakoa izango litzatekeen ala ez. Arazo larriagoak ditudanez, bazkideen erabakia ondo irudituko zait, bozketa-aren gehiengoaren errespetatzen bada.

Ez haserretu. Bizitza laburra da eta ez dakigu noren beharra izango dugun etorkizunean. Apaiz baten sermoi itxura hartu baino lehen amaituko dut.

***Kooperatibakideen erabakia onartuko dut, gehiengoaren iritzia bada***



**Txokoak eta jendea**  
Musean  
txapeldunak

Aiako festetan urtero antolatu ohi dute mus txapelketa. Aurten ia 50 bikote aritu ziren jokoan, eta hona hemen txapeldunak: Maria Axun eta Maria Ixabel Zuloaga ahizpak. 90 urte ditu batek eta 87 besteak, beraz adinak traba baino esperientzia ematen duen seinale. Pozik jantzi zuten merezitako txapela buruan dutela. Zorionak!



## BOGA-BOGATIK HONDARRETARA

**H**ondartza denboraldia amaitu da, oraindik, egun eguzkitsuak aprobetxatuz, hara bisita egingen duenik badagoen arren.

Itxura aldaketa izan du hondartzak argazki hau atera zutenetik. Izan ere, argazki honetan ikusten ez den arren Boga-Boga eta aldameneko txaleten atzeko partean jarri ziren erretratua ateratzeko prest tabernako txikienak. Etxekoekin batera, neskatila nafar bat ere badago beraiekin, garai hartan hondartzara etortzen zena Oriora.

1970. urte inguruan ateratakoea da argazkia eta hauek agertzen dira, ezkerretik eskuinera: Rikardo Arrizabalaga, Sagrario Larrañaga, Kandelaria Ramiro, Gurutze Larrañaga, Jorge Luis Garmendia, nafarra eta Fernando Arrizabalaga.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: B. LARRAÑAGA

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

**Allianz** 

**Marigre Zaldua**  
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe-oina  
telefonoa: 943 13 47 60  
faxa: 943 83 57 52  
e-maila: zaldua.deleonz.pa@allianz.es

**azkue**

Tf: 943 13 04 38

**agirresarobe**  
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |  
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |  
FATXADEN ERABERRITZEAK |  
IGOGAILUEN PROIEKTUAK |  
GREMIO KOORDINAKUNTZA |  
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... |

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGDA, ZARAUTZ  
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722



Arrauak gora igo eta bandera gogotsu astindu zuen Aitor Carrillok Orioko estropada irabazi eta gero. KARKARA

# Helburua beteta, San Miguel ligara bueltan



Bandera guztiak astindu zituzten KAE-1 ligako azken estropada eta gero. KARKARA



Atsekabetuta atera ziren Donostiako uretatik Kontxako sailkapen estropada eta gero. KARKARA

Urte hasieratik jomuga garbi markatu zuten zuzendaritzak eta talde teknikoak. **Oriok 2013an San Miguel ligan behar zuen, eta hala izango da.** Estropadaz estropada lana beltz eginda, Portugaleten lortu zuten helburua gauzatzea. Dagokion tokira itzuli da txalupa horia.

**TESTUA: IKER GURRUTXAGA**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**

**D**enboraldi gazi-gozoa izan da oriotar askorentzat aurtengoa. Baina gozotik askoz ere gehiago du gazitik baino. KAE-1 ligan irabazitako banderen marka jarri dute, eta hemendik aurrera ezingo da marka hori hobetu. Askok jota berdindu egingo da. Marka bat gehiago Orio Arraunketa Elkartearen *curriculum-merako*.

Gazitik, ordea, bitan probatu behar izan dute lehenengo txalupako mutilek.

Uztailean lehendabizi eta abuztuan ondoren. Bazekiten test-estropada garrantzitsuak zirela lurralde-txapelketak, Kontxako estropadan sailkatu nahi bazuten. Gipuzkoakoan gauzak ez ziren nahi bezain ongi joan eta Euskaditik kanpora geratu ziren, Bizkaiko ontzi indartsuenekin indarrak neurtzeko aukerarik izan gabe. Hor hasi ziren sortzen herritarren lehenengo kezkek.

Bide luzea zuten aurretik baina. Hila-bete eta erdi Kontxako sailkapen estropada bitartean. Denbora horretan, estropadak banderekin zenbatuz jarraitu zuen Igor Makazagaren koadrilak. Bigarren ontzia ere txukun ari zen bitartean, KAE-1erako uberan ziren. Neskek, ordea, ezin gauza bera esan.

**Aliron, bandera da Orion...**

...eta horrela asteburua joan eta asteburua etorri. Baina herritarrek ez zuten lehenengo mailako banderekin adinako irrikarik erakusten. Ezta arraunlariek ere. Plazan ez zen halako pilaketarik izaten eta Udaletzeko balkoian ez ziren arraunlari denak elkartzen ongietorrietan. Herritarrek gehiago nahi zuten, eta arraunlariek zer esanik ez. Banderak irabaztearekin gustura ziren, jakina, baina abuztuaren bukaeran hasten zen haien benetako erronka, eta, bitartean, umil-umil, lanean gogor jarraitzen zuten. Hizketarako garaian ere ez zuten hitz bat bestea baino ozenago esaten, serio agertzen ziren estropada kontuetaz hitz egiterakoan. Zailena bidean zegoen.

**Iraila izango zen...**

... arraunlariak begiz jota zuten hilabetea. Batetik, Kontxako estropadak zeto zelako. Bestetik, KAE-2ko ontziak playoff-a jokatuko zuelako. Eta, azkenik, San Miguel ligara igotzerako kanporaketak ere segituan zirelako.

Irailako atarian, ordea, zita garrantzitsuena abuztuaren 30ean zuten bai neskek, baita mutilek ere. Neskek lehenengo Kontxan sartzeko irrika berezia zuten, baina ezin izan zuten lortu. Han bukatu zuten beren denboraldi ofiziala. Mutilek, bestalde, beren erronka nagusia zuten Donostiako estropadan jarrita. Han lortutako emaitzak lasaitasuna emango zien San Miguel ligara igotzeko garaian.

Eta emaitza ona izan zen. Agian ez haiek nahi zuten bezain ona, ezin izan zutelako sailkatu, baina TKEko ontzi askoren pare ibili ziren, Igor Makazaga bera tosta hautsita zela eta itsaso handiarekin. Playoffera begira itxura bikaina eman zuten oriotarrek.

**Gipuzkoako azken paladak**

Pasaiako uretan elkartu ziren Castro, Orio eta San Pedro. Elkarren aurka lagunarteko bi luzetako bi estropada egin zituzten, indarrak neurtu eta Bermeo eta Portugaleteko estropadak prestatzeko.

San Pedrok eta Castrok itxura ona emanda bukatu nahi zuten 2012ko San Miguel liga, ahal zela gertuko traineruak -San Juan eta Astillero- mendean hartuta. Oriok, bestalde, parean jarrita neurtu nahi zituen indarrak TKE ligako ontziekin.

Bi estropadetan Oriok egin zuen denborarik onena, eta, berriz ere zapo gozoa ahoan, azken bi egun erabakigarrietarako prest ziren mutilak.

**Playoffean nagusi**

Bi estropada egun. Bata itsasoan, bestea erriean. Bi eremu konplikatu. Korronteen eraginak kaleen zozketan gauzak asko zaildu zituzketen eremuak, alajaina. Horrek sortzen zuen kezka nagusia Orioko koadrilarengan. Uretan zalantza guztiak uxatu zituzten tarte handiarekin irabazita. Lan erditan, traineru erdia aurretik ziren, San Miguel ligara igotzeko bidean.

Igandean Oriotik jende asko joan zen Portugaletera babesa ematera. Arraunlariak, hutsik egin gabe, bigarren jardunaldia ere irabazi egin zuten, hori lortzea zaila izaten den Ibaizabalgo uretan. Estropada bukatu, trainerua jaso eta Oriora. Bazkaritan hasitako ospakizunak, plazan izan zuen segida. Plaza hori-hori eta jendez lepo. Arraunlari denak festan. Egun handietan bezala. Orio dagokion tokian, San Miguel ligan, da berriz.



Igor Makazagak entrenatzaile karguan jarraitzea da zuzendaritzaren lehenetsuna. KARKARA



Indar betean aritu ziren Orioko estropadan, estu hartu baitzuen Mirotxa Santurtzik. KARKARA

**BANDERA DENAK ETXERA**

**KAE-1 ligako estropada guztietan garaile Orio**

**Marka.** KAE-1 ligaren historian Orio izan da denboraldi bereko bandera guztiak irabazi dituen lehen elkarte; lehena eta bakarra. Ekainetik abuztura jokatutako hamabi estropadak irabazi dituzte. Baina, hori nahikoa ez, eta tarte handiarekin irabazi dituzte lehiak. Bitan baino ez dute izan 10 segundotik beherako aldera bigarrena: Orion eta Zarautzen.

Non eta noiz	Orioren denbora	Bigarren	2.aren denbora
Elantxobe, ekainak 24	19:46,83	Elantxobe	20:08,62
Santurtzi, uztailak 8	19:52,06	Santurtzi	20:13,03
Donostia, uztailak 14	21:46,12	Elantxobe	21:59,44
Camargo, uztailak 21	20:19,57	Santurtzi	20:38,26
Getaria, uztailak 28	20:41,46	Lekittarra	20:57,34
Lekeitio, uztailak 29	20:02,48	Santurtzi	20:13,49
Orio, abuztuak 4	20:41,51	Santurtzi	20:51,31
Ondarroa, abuztuak 11	20:54,92	Santurtzi	21:15,31
Hondarribia, abuztuak 12	20:04,70	Santurtzi	20:15,96
Zarautz, abuztuak 15	20:29,87	Santurtzi	20:34,86
Bilbo, abuztuak 19	20:03,82	Getaria	20:13,84
Santoña, abuztuak 25	19:37,32	Donostiarra	20:03,72





la ziaboga guztiak aurrena hartu ditu Mirotzak aurten. KARKARA

Manu Etxeberria. Arraunzalea

## Elkarte bat baino gehiago

**B**eti esan izan da Orio arraunketaren munduan Espainiako futbol talde baten parekoa dela, bien palmaresari erreparatuta. Neuk, pertsonalki, nahiago dut Kataluniako beste batekin parekatzea. Batak, Real Madrilek, badu futboleko historikoki garaipen zerrenda azpimarragarria; baina, bere jokalarik, entrenatzaile eta agintarien izara *española* aparte utzita, elkartearen jarduera futbola da, nagusiki. Bartzelonak, berriz, kirol-espezialitate ugartan nagusi izateaz gainera, badu, izan, berezia eta bakarra egiten duen filosofia eta nortasuna, eta horiekin nahi nuke parekatu gure elkartearen arraunlari eta gainerako kideen portaera, harrobiarekiko lana, modalitate guztietan aritzea...

Oriok, zalantzarik gabe, tostako arraunketan palmaresik onena du. Baina, ezin ahaztu, modalitate olinpikoan ere Euskal Herrian eta espainiar estatuan Orioko Arraunketa Elkartearen garaipen zerrenda aparta dela; esate baterako, gogoan dugu zortzikoak 1994tik 2005era Estatuko Txapelketetan jarraian irabazi zituen bederatzi -9!- garaipen. Tostako arraunketari dagokionez, bukaezina litzateke kontatzea zenbat bandera eta trofeo ekarri dituzten *agilutxoek*: Kontxako 31 bandera, Zarauzko 11 Ikurrina, El Corte Ingles-eko 10 bandera...

Uda honetako arraunketa denboraldian gure estropalarietako erroka lantzaren zuten. Oso gogorra izan zen oriotarrentzat -triste eta mingarria, izan ere- aurreko denboraldian TKE Ligatik kanpo geratzea, eta, bigarren mailara jaitzea. Aurten nahi eta nahi ez berriz ere aurreko mailara itzultzea zen helburua; derrigorrean bete beharreko helburua. Eta baita lortu ere! Gainera, modu izugarrian egin zuten igoera gure mutilek. Inork -ez Kaikuk, ez Astillerok...- lortu gabeko marka jarri zuten, Ligako estropada guztiak irabazita. Pena guztiok gogoan ditugun estropada erabakigarri bitan ez asmatu izana, baina beste lehiaketan, beste maila batean, ari-tzeak duen arriskua da hori. Zalantzarik gabe, datorren urteko udan, onenen parean jarrita, Mirotza punta-puntan, Kaiku, Hondarribia eta abarrekin borrokan ikusteko aukera izango dugu.

Joan den denboraldian aukeratu mugikorreko espezialitatean, esan daiteke *tran-*

**Oriotarrok, harrotasunez esan dezakegu, ozen eta garbi, Orio elkarte bat baino askoz ere gehiago dela**

*tsizio urtea* izan dela; edo hala espero dugu, behintzat, hurrengo urteetan berriz ere gorantz egingo dugulakoan. Orio B eta nesken entrenamenduan gainera hitz egitean, berriz, itxaropena da burura datorrigun hitza. Nesken artean aurpegi berriak ikusi ditugu aurten; gazteak ere badatoz atzetik, eta belaunaldi-aldaketa ziurtatuta dago. Emakumeen ligan maila izugarria dago, eta dagoeneko neskek mutilen antzera prestatu beharra daukate.

Azkenik, eta hoberena bukaerarako uzteko asmo argiarekin, mutilen B traineruen denboraldi bikaina aipatu beharrean nago. Beste taldeetako A traineruen aurretik ibili dira gure gazteak, eta beste elkarte handien B traineruen aurka ere lehiatu dira. Esaterako, bukatzearen iraila honetan bertan, ikustekoa izan zen hondarribiarren aurpegia, herrian bertan gure B traineruak beren B traineruari 40 segundo atera zizkionean. Bestalde, ligan bigarren geratu den Trintxerpeko presidentearen harridura nabaria zen, haiek egin duten lana egin da gero, talde bateko B traineru batek irabazi izana; benetan harrigarria eta txalogarria iruditu baitzitzaion. Izan ere, oriotarrok, harrotasunez esan dezakegu, ozen eta garbi, Orio elkarte bat baino askoz ere gehiago dela.

Aupa Orio!

# 'Uatsap' erregosiak

**A**bioi bateko mahai ziztrin batean hasi naiz idazten gaurko zutabea. Lasai, ez nago eta paper zuria aurrean eta gonbitoan poltsa-txoak noiz inspiratuko zain. Aspalditik dut gaia aukeratua. Andereño Nekane ikastola garaian bidaltzen zizkigun *composition* haietako bat balitz *Nola aldatu dute teknologia berriek gizakiaren jokatibea?* izango litzateke. Garbiñeren hizkera pipertura ekarriaz: azken boladan internet, mugikor eta kristo guzti horien aitzakiatan jendeak egiten eta zeharo erregatzen nautenen zerrenda.

Frankismo garaian, eskoletan, *Educación y Urbanismo* izeneko ikasgaia izaten zuten. Ama Marilok ikasi zituen bertako legeak, eta baita saiatu ere haiek guri erakusten. Nik ez nituen ulertzen lege txoro haiek. Desfasatuak iruditzen zitzaizkidan erabat. Ondo kosta zitzaidan tenedorea hiru behatzekin nola heldu behar zen ikastea!

Eta orain berriz edukazio horren ize-

nean bat baino gehiagori egingo nioke tenedorearekin zizta! Orain, ni naiz teknologia berrien harira edukazio legeak berridaztea eskatzen duena. Uhinezko erlazioek fisikoei gaina hartzen baitiote eta horrek izugarri amorratzen nau.

Pertsona batekin hitz egiten ari bazara eta mugikorra kantari hasten bazaio, bi segundo baino lehenago telefonoa erantzun egiten du hark. Ixildu eta beste aldera begira jartzen naiz horrelakoetan. Lotsaturik, bestearen hizketaldi pribatuan muturra sartzeagatik. Zergatik ote du lehentasuna telefono atzean dagoenak eta ez ordurako zure-

kin hitz egiten ari zenak? Zergatik daude beti mugikorrak mahai gainean? Gose al dira? Zergatik ote da uatsapa braba razio bat zurekin jaten ari dena baino garrantzitsuago? Errespetu piska bat brabekiko, mesedez!

Txispaz armaturik nago hegazkineko eserlekuan dagoenerako, nire brabotasunak turbulenzia sortzeraino. Mahaitxoak jaso behar izan dut, eta gauerako utzi idatzia errematea. *International Herald Tribune* hartu dut denbora pasarako, eta azaleko berriak guztiz beldurtu nau. Interneteko enpresek sortzen duten kutsaduraz ari da. Guk idazten ditugun mezu elektroniko, uatsap eta txioak gorde ahal izateko energia kantitate itzela behar dela dio, datu zentroak hoztu ahal izateko energia. Bat-batean nire burua irudikatu dut edukazioaren izenean mendeku gosez hozte sistema guztiak jo eta txikitzen. Zuen uatsap txepel horiek guztiak egosten ikusten ditut oraintxe bertan!



**Zergatik ote du lehentasuna telefono atzean dagoenak eta ez ordurako zurekin hitz egiten ari zenak?**

**Automóviles ZARAUTZ**  
OTROÉN ZERBITZU ORINDALA  
Itzaskatu deniak eta 18 deniak sagatzen  
ZARAUTZ, Tel. 943 13 13 50

**ARISTERRAZU**  
jatekua  
Andalza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**AKOBE ACTIVA**  
**JUAN ALBIZU**  
Etxetresna elektrikoak  
sukaldeko altxariak  
Abeslari, 6 - 20810 ORIO  
Tel/Fax: 943 83 12 49 - albizu@activahogar.com

**uranga**  
autozerbitzua  
Aliprox  
Euzko Gudari Kalea 13-15  
ORIO  
943 83 36 75

Kinkladenda - Ume arropa  
**argine**  
www.lasonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89  
25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

**ALTXERRI**  
Karta eraberritua  
Asteburuan, eguerdi eta gutxian,  
menu bereziak  
943 83 07 62

edukazio  
**ANTILLA**  
jatekua  
Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaia S.L.  
Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.  
Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01. 656 78 29 99

# Subiranotasuna kolokan

**T**railaren 11ko Diada egunean azala oilo ipurditan jarri zitzaidan Kataluniako TV3 telebista katearen webgunean adin desberdinetako kataluniarrek *stelada*-rekin –Kataluniatako independentzia aldarrikatzen duen bandera– *in-independentencia* oihuka Bartzelonako kaleak hartu zituztela ikusi nuenean. Alderdikeria alde batera utzita, euren herria, hizkuntza, izaera eta kultura aldarrikatzeko grina eta nahia nabaritzen zen bertan bildu ziren herri-tarren begietan.

*Catalunya, nou estat d'Europa* lelopean milioi eta erdi lagun bildu ziren Bartzelonako kaleetan; 7,5 milioi biztanle dituen herrialde batean 1,5 milioi pertsona kalera atera eta euren nahia aldarrikatzea oso garrantzitsua izan da; historia egin duen manifestazioa inolaz ere.

Dena dela, politikarien hika-mika eta azpijokoen gainetik *nahikoa da* esan eta Kataluniako herriak hitza hartu bazuen ere, harritura geratu nintzen Espainiako politikariek eman zuten erantzunarekin. Nola da posible kataluniarren %20a modu baketsuan kalera atera eta Espainiako politikariek entzungor

egitea? Jakin badakit, ez dela horrelakorik gertatzen den lehen aldia, Euskal Herrian ederki ezagutzen baitugu Espainiako gobernu desberdinek euren nazio eredutik aldentzen den ideologia eta pentsamoldeen aurka hartu izan duten jarrera. Baina, irailaren 11ko manifestazioaren aurrean Espainiako alderdi konstituzionalistek ezin izan dute terrorismoa aitzakia moduan jarri; ezta manifestazioan zehar gertaturiko istiluak ere, ez baitzen horrelakorik izan.

Mundu osoko komunikabideak Katalunian lehertu den independentzia nahia albistegi, editorial, iritzi artikulua eta erreportajeetan hizpide duten bitartean, Espainiako politikariek beste aldera begiratu dute; milioi eta erdi lagun bildu zituen manifestazioa anekdotikoa izan zela esatera iritsi dira zenbait, eta bertan ez ziren kataluniarrek zeudenak baino gehiago zirela esanez, gutxietsi egin du aldarrikapena PPC-k. Diadako manifestazioaren inguruko albistea, esaterako, irailaren 11ko TVEko iluntzeko albistegietan eman zuten bosgarren albistea izan zen. Hitz gutxitan esanda, lotsagarria!

Historikoa izan zen manifestazioaren aurrean Espainiako politikariek izan duten erreakzioa ikusita, galdera batzuk datozkit gogora. Espainiako herriak subiranotasunik ba al du? Ala itxurazko demokrazia batean bizi gara? Zein momentutan ahaztu zaie politikariei herritarren ordezkariak direla, eta herritarrok aukeratu ditugulako dutela herrialdea zuzentzeko boterea?

Herritarren subiranotasuna etengabe kolokan dagoela dirudi, herria entzuten ez duten politikariek euren boterea ez galtzeagatik, herritarren hitzari muzin egin eta aldatetak oztopatzen dituztelako.

Ezinezkoa da antzinako politika eta pentsamoldeetan oinarrituta, etorkizunari aurre egitea; ez dugu gauzak aldatzeko beldurrik izan behar, garai berrietara moldatzen diren gizarteak baitira etorkizuneko erronkak behar bezala joratu eta denen ongizatea bermatzen dutenak.

**Nire honetan**  
Iker Gurrutxaga

## Serio jarri gaitezen

**A**urreko asteburuan, Elgoibarren 15 urteko neska bat bortxatu zuten. Gertaera guztiz nazkagarria eta salagarria inondik inora.

Baina halako egoera baten aurrean gauza asko etortzen zaizkit burura. Eta alde aurretik argi eta garbi utzi nahi dut bortxatzailea dela beti errudun halako egoera baten aurrean. Baina, noan azaltzera nire gogoeta. Izan ere, Elgoibarren gertatu den kasu hori, Orion edo Zarautzen ere gerta zitekeen.

Ez naiz parrandazale sutua, eta gauez festara irteten naizenetan inguruari asko erreparatzen diot. Azken boladan, esaterako, harritura nago gazteen artean kontsumitzen den alkohol gehiena alkohol gogorra dela ikusita. Gero, halako koadroak ikusten dira: politagoa dagoelakoan gona motza darman neska lurrean botata guztia agerian, hari begira mutil inuzente bat *gaur de balde joko diat* esanaz, neska haren lagunak bestaldera begira... Eta ziur, pentsamendu onik ez zuenen bat inguruan izango zela.

Parrandan *desfasatzearen* alde nago, bakoitzak nahi duen moduan janztearen alde, adierazpen askatasunaren alde... Baina, kontzientzia uste baino azkarrago galtzen da, eta, tamalez, salatu gabeko kasu asko daude.

**Espainiako herriak subiranotasunik ba al du? Ala itxurazko demokrazia batean bizi gara? Zein momentutan ahaztu zaie politikariei herritarren ordezkariak direla, eta herritarrok aukeratu ditugulako dutela herrialdea zuzentzeko boterea?**



**KAIUA**



Plater konbinatuak,  
bokatak, hanburgesak...

ANIBARKO PORTUA 35, BEHEA    TF: 943 840 060

943 83 09 86



**KOASTA**

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

**KOLON TXIKI**

estabuzuzin  
jakek.com



Herriko Enparantza, 4  
ORIO

Tel. 943 83 00 44

*Lizaso*  
dekorazioa



Eusko Gudari, 48

TF: 943 83 07 84    Faxa: 943 24 87 15

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

ardoak, urdaikiak, gaztak,  
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino  
eramaten ditugu



943 83 09 84

alta Iertxundi, 36  
ORIO

**LEIHOLAN**

Aholkularitza teknikoa eta erakusketak



Publika Agote Industrialdes Agote, 5. 20740 Zentxa	Erakusketak San Prantzisko, 1. 20800 Zarautz	Alta Iertxundi, 21. 20810 Orrio Tel: 943 89 49 36
---	--	---

**LORETXU JATEXER**



Eusko Gudari, 18    Telf: 943 83 00 07

**LURDES**  
ARRAZDEGI



Eusko Gudari, 4 • Tel. 943 83 00 24

**LUXARBE**  
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra,  
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
konpromisorik gabe

Lan txukuna  
eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943. 572083  
FAX - 943. 571190  
Lasenio@hotmail.es

INES ASENJO  
IBAI ONDO 13  
20810 ORIO

Be apaindegia


**MARIJO**




Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**Nahikari**



HAUR DENDA



Arrantzale Kalea, 35  
28100 - Orrio  
Telf. 943 83 36 30  
www.nahikari.es



**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orrio (Gipuzkoa)



**MIRANDA**

Iarima, ate, leiho, eskalera...  
behar diren arotz lanak  
egingo dizkizugu

Udako eta bidai. 1 -669 42 32 70- ZARAUTZ



FISIOTERAPIA Garikoitz Ariztegi eta Natalia Wierszen  
NUTRIZIONISTA Garbitha Aizpuru

**sinergia** investigacion  
fisioterapia

Ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

# Inkesta

## Ematen al dugu behar adina odolirik?

*Hiru hilabetean behin egiten du Odol Emaileen Elkarteak odol-ateratzea Orion. Herritar asko joaten den arren, oraindik 30etik gora oriotar falta dira eskaera asetzeko.*

“Odol-emaile gazteen beharra dago batez ere”

**O**rion orain dela 40 urte hasi ginen odola ateratzen, falta zelako, beste herri txikietan ere jendea elkartzen hasia zela ikusita. Guk ere zerbait egin behar genuela pentsatu eta

hiru-lau lagun hasi ginen. Gaur egun, haietatik nik neuk bakarrik jarraitzen dut, etxekoen laguntzarekin.

Jendea oso gustura etortzen da, baina, hala ere, emaileak falta dira. Herri ba-koitzeko biztanleriaren arabera odol-emaile kopurua eskatzen da, eta, Orion, 40 inguru falta dira oraindik ere. Gazteen beharra sumatzen dugu batez ere, nahiz eta baden talde bat txintxo etortzen dena. Gazteek batzutan *piercing*-ak edo tatuajeak egin berri daudelako, atze-

rrira joan direlako eta txertoak hartu dituztelako ezin izaten dute odola eman. Adin batetik aurrera, berriz, gaixotasunak hartzen dira, eta, tratamenduan egonez gero, ez dago odola ematerik.

Badira oriotarrak izan arren, unibertsitatean ematen dutenak, edo, Donostiara joaten direnak, han zain egon gabe berehala ateratzen dietelako odola.

### Kristina Atorrasagasti

Orioko Odol Emaileen Elkarteak arduraduna

“Odola ospitaletan egunero behar den zerbait da”

**E**maile asko guraso, anai-arreba edo lagunek animatuta etortzen da. Gertuko bat odol beharrean izanagatik etortzen direnak ere badira; gertatuak zer pentsatua eman dielako

datoz. Herrian kartelak ikusita ere etortzen da jendea. Hala ere, oraindik herritarren artean ohitura sortzea falta da. Ohiko odol emailea, maiz etortzen dena, oso heldua da; gazteei lehen aldiz etortzea kosta egiten zaie, eta, baita ondoren errepikatzea ere; baina badira behin baino gehiagotan etorritakoak.

Orion hiru hilabetean behin egiten da odol-ateratzea eta badira, osasun edo lan arazoren bat izan ezean, urteko hitzordu guztietara etortzen direnak. Izan

ere, gizonezkoek urtean lau aldiz eman dezakete odola; emakumeek, hirutan.

Askori beldurrak edo ezjakintasunak eragozten die etortzea, baina behin probatuta, konturatzen dira ez dela horren zaila; hortik, batzuk berriz etortzen dira. Odola ospitaletan egunero –larrialdietan nahiz gaixozentzat– behar den zerbait dela esan nahi nieke herritarrei.

### Mertxe Ruiz de Gauna

Sendagilea

“Odola ematen dut denon egin beharra dela uste dudalako”

**O**dola emateko aukera eta beharra zegoela aipatu zigun Kristina Atorrasagastik egun batean, eta, beraz, etorri egin ginen, koadrilan. Bada urtebete edo hasi ginela, eta, ordutik hi-

tzordua dagoen bakoitzean etortzen gara ambulatiora. Adi egoten gara eguna noiz etorriko, eta, elkartetik ere abisua pasatzen digute, gainera.

Lagun batzuk hasi ginen etortzen, eta, gerora, guk ere ingurukoak animatu ditugu odola ematera.

Gustura egiten dugun zerbait da, eta, norbaiten onurarako dela jakinda, are gusturago. Bestalde, ahal den neurrian besteei laguntzea denok egin behar dugun zerbait dela iruditzen zaigulako

ematen dugu odola. Gainera, hamar minutuko kontua baino ez denez, ez zaigu ezertxo ere kostatzen.

Hasieran, kalean kartelak ikusi eta egin behar genukeela pentsatu arren, erreparoa ematen du; baina behin probatuz gero, ziztada txiki bat baino ez dela ikusten da; horregatik, jendea odola ematera animatu nahiko nuke.

### Xabier Iburguren

Odol emailea

“Kontzientzia falta edo nagikeriagatik ez naiz joaten”

**N**i ez naiz odol emailea. Anemia puntu bat daukat eta nik neuk analisiak egin behar izaten ditut odola nola daukadan ikusteko; hortaz, ez dut sekula pentsatu odola ematera joa-

tea. Lasemia ere badaukat eta beti iruditu izan zait nire odola ez dela beste bantentzat baliagarria izango, beharra edukit arren.

Hala ere balio duela esango balidate, ez nuke arazorik izango odola emateko, beldurrik behintzat ez dut horretarako eta. Denok egin behar genukeen zerbait dela uste dut, eta, seme-alabak ditugunok kontzientziatuago egon behar genuke, gainera.

Lagun eta senideak, nik dakidala

behintzat, ez dira odol-emaileak, eta, beharbada, nagikeriagatik edo kontzientzia faltagatik ez gara joaten. Odola behar duen norbait gertu izanez gero, orduan konturatuko nintzateke benetan zein beharrezkoa den, baina zorionez oraingoz ez zait horrelakorik tokatu.

Beharbada hurrengorako kontuan izango dut eta joango naiz.

### Olatz Garrido

Herritarra

# Hiru 'lagun' triangelu arin baten erpinek harrapatuta

## Kritika Udazkeneko lorea

Xabier Etxeberria. Elkar. 2012.  
Bakarkako bigarren eleberria.

**H**iru lagunen istorioak liburu bakarrean. Agian ez da erabat egokia, ordea, hiru direlako pertsonaia nagusiak, baina gehiago horien bueltan ageri direnak.

Hiru pertsonaia. Hiru hitzetan adierazteko komedia erromantiko korapilatsu-edo korapilatu, ulertzeko erraza baita- honen ardatza: Mikel, Naroa eta Lucia. Hirurak korapilo batean elkartzen diren arren, hori da, hain zuzen ere, irakurlea harrapatzen duena, kapitulu batetik bestera gogo biziz, kontuak irakurtzeko grina piztuta ibilaraziko duena. Hiruren istorioak elkar trukatzuz irakur daitezke edo pertsonaia baikoitzaren kapituluak banan-banan, hirurenak osatu arte. Aukeran, erakargarriagoa triangeluaren hiru erpinek bat egin arte tartekatuta irakurtzea.

Izan ere, triangelua osatzen dute hirurek. Mikel eta Naroa bikotea dira. Naroak joaterik ez duen ezkontza batean, gizonak Lucia ezagutuko du, eta harekin gau bateko harremana izango. Mikeli dagozkion kapituluak, gertakarien oinarritzko kontaketa egingo dute lehen pertsonan.



Elkar argitaletxearekin kaleratu du Etxeberriak eleberria. KARKARA

Luciaren atalak, bestalde, bigarren pertsonan kontatuta daude, eta bere ahizparekin dituen harremanen berri emango dute batik bat. Naroa medikuaren ataletan, berriz, adineko emakume bat zaintzeko egiten dituen bisitak ageri dira, eta honek alabarekin dituen harreman liskartsuak. Hiru lagunen istorioek bat egingo dute azkenean.

Istoria, oro har, arina da, baita estiloa ere. Liburua irakurtzen den azkartasun berearekin askatzen da korapiloa; azkarregi agian, behar lukeen garrantzia eman gabe. Hala ere, liburu gustagarria da udako beroak arintzeko zein udazkeneko euri arinetik bestuz irakurtzeko.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ikasleak idazle**  
Mikel Orbañanos

## Orioko hondartza

**O**rain dela denbora asko Orioko hondartzara oriotar asko joaten zen, baita kanpokoak ere. Kontua da ondo egokitua zegoela; esaterako, hondarra oso garbia zegoen eta marea-aren joan-etorrien ondorioz, asko berritzen zen.

Baina orain zer? Jende asko ez da ia joan ere egiten hondartzara; izan ere, gaur egungo hondarra oso zikina dago. Eta uretara sartzerakoan zulo ikaragarria dago!

Egoera horretaraino iristeko bi eragile nagusi topatzen ditugu: eskoilera eta draga. Azken horrek Oriai ibaiaren bokalean hondarra hartzen du; ondorioz sakonera handiagoa du eta horregatik olatuak ur ertzean leheritzen dira.

Hori guztia esanda, bi aukera ikusten ditut egoera hobetzeko: eskoilera handia moldatzea, eta hondarra ibaiaren bukaeran ez dragatzea.

**Bi aukera ikusten ditut hondartzaren egoera hobetzeko: eskoilera handia moldatzea, eta hondarra ibaiaren bukaeran ez dragatzea**



**RAMIRO**  
argazkiak

www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68  
943 83 10 48

**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**  
TRORROKAK - BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutza  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

Esteko balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

## » OSPAKIZUNA



## Aiora, arreba txikia

Aiora Palau Martinez udarekin batera jaio zen Donostian, ekainaren 21ean, hain zuzen ere. Marijo eta Jose, bere gurasoak, eta batez ere argazkian arreba besotan duela agertzen den anaia Axel, oso pozik daude bere etorrerarekin. Laurak familian elkar zainduz ongi pasatu dute udan eta hala egingo dute aurrerantzean ere. Ongi etorri Aiora eta zorionak familia!

## » INKESTA

## Zaborra atez ate bildu, bai ala ez?

Azken inkestaren erantzunak manipulatu egin direla nabaria izan denez, emaitza ez kaleratzea erabaki dugu, ez da erreal-eta.



### HURRENGO GALDERA

## Zenbat farola daude Eusko Gudari kalean?

Erantzun ezazu [www.karkara.com](http://www.karkara.com) webgunean eta emaitza 324. Karkaran argataratuko dugu.

## » ZORIONAK!

## Aiarako autobusei

**L**urraldebus zerbitzuak zorionak edo esker onak merezi ditu irailaren hasieratik egokitutako autobusen ordutegia abian jarri duelako.

Aldaketak, goizeko eta eguerdiko zerbitzuetan egin ditu. Batik bat azpimarratze-koak dira goiz erdian Zarautzera jaisteko autobus bat gehiago jarri izana, eta eguerdian, Zarautzik Aiara, ordura arte 16:40ean, igo-

tzen zen autobusa 15:45era aurreratzea. Horrela, besteak beste, batxilergoko ikasleei zerbitzu hobea emango die, eskolatik atera bezain pronto etxerako bidean jartzeko aukera izango baitute.

Gainera, Landabus zerbitzuarekin ez bezala, aurrez deirik egin gabe ordutegi zehatzetan daude autobusak.

Ez da sarritan horrelakorik pasatzen zoritxarrez, batez ere Aia bezalako herri txikitant; eta herritarren beharrak asetzen saiatzeaz gain, garrario publikoa bultzatzeko modu egokia izan daiteke.

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA  
Hileta eta zerbitzu orokorrak

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Aldiroko zerbitzua  
\* Belatorio gelak  
\* Koroak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz  
Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 43  
e-mail: [harrerespili@harrerespili.net](mailto:harrerespili@harrerespili.net)

**PERTSIANAK**  
A K O M A Z  
Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Musikorra 600 70 52 27

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta erremintak

[fer.uranga@euskalnet.net](mailto:fer.uranga@euskalnet.net)  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**  
Igeltseritza

699 46 76 21  
943 13 10 37

tel/fax: 943 89 00 69  
Bikain kalea, 4. 20.800 ZARAUZ

**URBIDE**

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA BAINU ERAKUSKETA  
Propietateak, kopuruen gain

**Zaragueta**  
Eskola Orto

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: [012137aa@hezkuntza.net](mailto:012137aa@hezkuntza.net)



Ikasle onak topatu zituen Peter Karresek Orion. KARKARA

# Peter Karres Orion (eta II)

## Oroimenaren kutxa

**K**arres Oriora etorri zenean, 1967an, kirol prestakuntza zeharo ezberdina zen. Berak metodorik aurreratuenak ezagutzen zituen, Alemaniako selekziotik. Orion estropada aurreko egunetan txuleta jan eta baxoerdiak edaten zituzten arraunlariak topatu zituen, entrenamenduak eta estropadak batere berotu gabe hasten zituztenak. Txundituta geratu zen. Goitik behera aldatu behar izan zuen lan egiteko modua. Era berean, zureta lurreratu zen Kontxa-ko estropada lehenengo aldiz

ikusitu zuenean: hango jendetza, giroa eta koloreak. Europako eta munduko txapelketetan egona zen, baina hala-herrik ez zuen inon ikusi.

Aurreko belaunaldiak bes-telako ikusmoldea zuen, eta Peterri arraro begiratzen zioten. Ezkutuan entrenamenduak egindakorik ere ezagutu zuen. Arraunlari gazteak borrokatu ziren zaharren aurreiritzien aurka, mahai gainean ukabilkada joz. Orion arrauna zen garrantzizko ia gauza bakarra, futbolaz ere inork ez zuen hitz egiten.

1969an Lisboan ari zen lanean, abuztuan Oriora zetorren, nazioarteko estropadara, arraunera. Caceresen istripua izan zuen, handik Oriora autoaren aurreko

kristalik gabe etorri zen, hegazkin-pilotuen betaurrekoak jantzita, aurpegia hautsez beteta. Estropada ondoren, Billabonako bi neska ezagutu zituen, Donostian alemanez ikasten ari eta praktika nahi zutenak. Haietako bat plaza-ko marmitakoaren ondoren etxera eraman zuen autoan. Gaur egun emaztea du. Urtebetera ezkondu ziren Orioko elizan. Elizkizunean Benito Lertxundi abestekoa zen, laguna baitzuen. Apaizak ez zuen horretarako baimenik eman, Benito modernoegia omen zen. Txistulariak ere ezin izan zuen txistua elizan jo, eta atea ireki zituzten zimitorioko musika entzuteko.

| IÑAKI ITURAIN |

## » JAIOTAKOAK

■ Yeray Villagran Males, Orion, irailaren 14an.

## » EZKONDUTAKOAK

■ Nagore Etxaniz Usarralde eta Garikoitz Erkizia Zabala, Orion, irailaren 15ean.


■ Eugeniy Ilin eta Jose David Rodriguez Blazquez, Orion, irailaren 6an.

## » HILDAKOAK

■ Joxe Molinero Cuenca, Orion, irailaren 12an. 82 urte.

■ Kandida Arruti Lertxundi, Orion, irailaren 12an. 93 urte.

.....  
 .. Eskela edo ..  
 .. urteurreneko ..  
 .. gogoangarria ..  
 .. KARKARAN jarri nahi ..  
 .. baduzu, deitu gure ..  
 .. telefonora: ..  
 .. **943 83 15 27** ..



**Katu**

KONTSULTAK  
TXERTAKETAK  
ERRADIOGRAFIKAK  
ODOL ANALISIAK  
KIRURGIJA  
ILEAPAINDEGIA



**HORIA**

ETOLOGIA - PORTAERA ARAZOAK  
AKUPUNTURA  
HOMEOPATIA

LAN-TXAKURRENTZAKO  
PREBENTZIO-PLAN BEREZIAK



ESTROPALARI, 10  
20810 ORIO

tel. 943 11 66 99

Larrialdia  
608 67 64 35



# “Bularreko minbizia diagnostikatzeko ez da kirofanotik pasa behar”

## Arrate Plazaola

Onkologoa

Bularreko minbizia duten edo izan duten emakumeei laguntzea du helburu Katxalin elkarteak, eta, tumoreak atzemateko informazioa zabaldu asmoz, Tratamendu Goiztiarra kanpainaren berri eman du Donostia Onkologikoko mediku batek Orion.

### IRATIAGIRREAZALDEGI

Onkologoa da Arrate Plazaola, eta bularreko minbizia ahalik eta goizen atzeman eta tratatzea gomendatzen du.

#### Zer da bularreko minbizia?

Bularreko zelula gaiztoen kontrolik gabeko hazkundea da. Batzuetan ez dira bularrean gelditzen, beso azpiko ganglioetara joan eta hortik pasa gabe ere ager daitezke gorputzeko beste ataletan.

#### Zein dira faktore eragileak?

Ziur ez dakigu, baina badirudi emakumearen hormonek zerikusia badutela. Kanpotik hartutako estrogenoan denbora askoan egon diren emakumeek arrisku gehiago izan dezakete.

#### Nork izan dezake arrisku gehien?

Lehenengo emakumeek, 8 emakumetik batek bularreko minbizia izango baitu;

gizonezkoetan, 100etik 4k. Adinari erreparatuta, puntu gorena 50 urtetik 69ra bitartean dago. Horregatik prebentzio kanpaina tarte horretan egiten da. Bi urtez behin 2 mamografia egiten dira: bata, goitik behera bularra pixka bat zapaldu ta, eta, bestea, alderik alde. Zer edo zer aurkituz gero, mamografia zabalago bat edo ekografia bat egiten da; ondoren, mostra bat hartzen da analisia egiteko. Halere, badira adin tarte horretatik kanpoko kasuak ere.

#### Zein sintoma izaten dira?

Gehienetan, kozkor bat edo azala barrurantz tiratuta egotea, bularrean presio pixka bat sumatzea eta, batzuetan, likidoa ere ateratzen da titi puntatik. Kanpainan nabaritzen ez den tumorea antzeman daiteke; erradiologikoki igar daiteke, baina oraindik tratatu ez.

#### Zein da gaitza aurkitzeko modu onena?

Lehenengo, mediku azterketa egitea. Diagnosi goiztiar bat egin nahi denean eta horrelako inongo sintomarik ez dagoenean, berriz, mamografia behar da, eta, batzuetan, ekografia lagungarria da.

#### Eta behin diagnostikatuz gero?

Ehun zatitxo bat hartu, eta patologiako laborategira bidalita jasotzen dira emaitzak. Gaur egun diagnosia egiteko ez da kirofanotik pasa behar. Behin minbizia dela dakigunean, proba erradiologikoa-ren bidez jakingo dugu zein tamaina duen eta zein tumore zehatz den. Gero, tumorea kenduko da; 3 cm baino gehiago baditu, kimioterapiarekin txikituko da aurrena, ondoren ebakuntza egiteko.

#### Zein dira tratamenduen ondorioak?

Ezagunenak, ilea erortzea, nekea eta urdaila nahastea. Farmazialariek lortu dute botikek gorakorik ez eragitea, baina ilea erortzearen aurka ez dago ezer.

**“Zortzi emakumetik batek bularreko minbizia izango du; gizonezkoetan, 100etik 4k. Adinean, puntu gorena 50 urtetik 69ra bitartean dago”**

“Bularreko minbizia senda daiteke. Emaitza ez da estatistika hutsa, eta handiak dira osatzeko aukerak, %100 izan ez arren”

#### Bularreko minbizia senda daiteke?

Bai. Ez da estatistika hutsa, eta handiak dira osatzeko aukerak, %100 izan ez arren. Tumore batzuk gaiztoagoak edo handiagoak dira edo garatuago daude, beraz, tratamendua ez da hain erraza. Kanpainari esker, zentimetro erdi baino ez dituzten tumoreak ikusten ari gara, eta, horiek, ebakuntza bidez kenduz gero, seguru asko senda litezke. Bestalde, tratamendu hormonalarekin kimioterapia beharrik ez dago. Gaitz hori bertan utziz gero, hurrengo diagnosian baliteke 3 edo 4 zentimetro izatea, edo dena urratuta izatea; alegia, gaitza aurreratuago egotea.

#### Bada modurik minbizia saihesteko?

Bularreko minbizia ugariena da; ez dago modurik gaitzari aurrea hartzeko. Gure gorputza zaintzea eta aldaketa edo minik sumatuz gero kontsultatu eta kanpainak egiten direnean parte hartzea.



LARRAITZ ZEBERIO/GOIENA

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokatzeko**

- Etxea emango nuke alokairuan. Loft erakoa. Baratz eta terrazarekin. Modu berezian bizitzeko. 750 euro. Tf.: 600 301 350..
- Apartamentua alokagai Hondartza kalean. Logela bat. Bikote baten zat aporposa. Hilean 550 euro. Tf.: 663 447 266.
- Etxebizitza alokagai Eusko Gudari kalean. 3 logela. Tf.: 943 83 88 97 (Mari Karmen).
- Etxebizitza alokatzeko Orioko erdigunean. Tf.: 696 332 880 (Jone).
- Bartzelonan, 4 logela, sukaldia, 2 komun eta egongeladun ikasleen etxebizitzan gela bat alokatzen dugu. (Molina Plaza ondoran). 637 111 587 (Marisa).

**Lan eskaera**

- 22 urteko neska LHko ikasleei eskola partikularrik emateko prest. Ingles eta ere bai. Tf.: 627 411 164.
- 22 urteko neska LH eta DBHko ikasleei eskola partikularrik emateko prest. Tf.: 653 724 570.
- Neska lan bila. Erreferentziarik. Tf.: 697 650 519 (Marina).
- Gizon gaztea esperientzia eta erreferentziarik, adinekoak zaintzeko prest. Bestalde, ordenagailuak ere konpontzen ditut. Tf.: 659 810 396 (Danil).
- Gizon gaztea esperientzia eta erreferentziarik, adinekoak zaintzeko prest. Tf.: 669 705 724 (Angel).

- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Ahal bada barneko bezala. Tf.: 674 413 970 (Jojita) eta 620 778 480 (Rosario).
- Neska haurrak edo adinekoak zaindu, eta garbitzeko egiteko. Barneko edo kanpoko. Esperientzia eta erreferentziarik. Tf.: 680 788 599 eta 943 831 128.
- Astebukaeretan edadekoak zaindu edo bainatzeko prest. Tf.: 664 834 388.
- Edadetuak edo umeak zaintzeko prest. Orduka, etxean edo kanpoan bizitzen. Esperientzia eta erreferentziarik. Tf.: 630 850 167.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
28	04:05 eta 16:21	10:00 eta 22:25	
29	04:43 eta 16:58	10:39 eta 23:01	
30	05:17 eta 17:32	11:14 eta 23:34	
01	05:49 eta 18:05	11:48 eta ____	
02	06:20 eta 18:36	00:06 eta 12:22	
03	06:50 eta 19:07	00:38 eta 12:56	
04	07:22 eta 19:40	01:10 eta 13:30	
05	07:55 eta 20:15	01:45 eta 14:08	
06	08:32 eta 20:57	02:22 eta 14:50	
07	09:19 eta 21:52	03:06 eta 15:42	
08	10:22 eta 23:10	04:03 eta 16:50	
09	11:45 eta ____	05:17 eta 18:10	
10	00:38 eta 13:05	06:36 eta 19:21	
11	01:47 eta 14:06	07:42 eta 20:17	
12	02:39 eta 14:55	08:35 eta 21:04	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

IRAILA

- 26an, Iriarte.
  - 27an, Larrañaga.
  - 28an, Mutiozabal.
  - 29 eta 30ean, Etxeberria.
- URRIA
- 1ean, Larrañaga.
  - 2an, Iriarte.
  - 3an, Azaldegi.
  - 4an, Mutiozabal.
  - 5ean, Etxeberria.
  - 6 eta 7an, Iriarte.
  - 8an, Etxeberria.
  - 9an, Larrañaga.
  - 10ean, Mutiozabal.
- Gaueko zaintza: Zulaika

- **Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- **G. Artifiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilar txo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>12:41</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: [www.mugitu.com](http://www.mugitu.com). Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



## Talai Mendikoekin dantzan

Dantza saioak hastera doaz Talai Mendi Helduen Dantza Taldekoen eskutik. 18 urtetik gorako dantza zaleek fandangoa, arin-arina, mutxikoak, Larrain dantza... ikasteko aukera izango dute, baita lehendik aritzen direnek hobetzeko ere. Urriaren 3an, 21:00etan, hasiko dira saioak eta Kosta Tailerrean egingo dituzte. Dantzarako gogoia dutenek, beraz, pausoa hara zuzendu eta doinuei jarraituz oinak mugitzeko modua izango dute.

## Aia

### Lehiaketa

■ Urriaren 1ean. Argazki lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna. Kultur Etxean.

### Silo-Bolak

■ Urriaren 9an, silo-bolen bilketa. Informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo Igor (660 04 97 51).

### Kirolak

■ Urrik maiatzera bitartean herri kaskoko frontoia erabiltzeko ordu erretserba. Hileko 10 euro eta dutxen erabilerarekin 15 euro. Astelehenetik ostiralera 19:00etatik 22:00etara, ordu eta erdiko txandetan. Informazioa eta izen-ematea, Kultur Etxean, 94313 09 24.

## Orio

### Kirolak

■ Urriaren 1ean Neguko 7. dardo torneoaren hasiera, Unar dardo taldeak antolatuta. Aurrera, Blink, koasta eta Tragoxka tabernetan.

### Bingoa

■ Urriaren 3tik aurrera, bingo saioa, asteazkenero, 16:30etik 18:30era, kultur etxeko areto nagusian.

### Pintxo-txikiteoa

■ Ostiral arratsalde eta gauean, azaroaren bukaerara arte, pintxo-txikiteoa. Tabernak: Antilla, Arkaitz, Aterpe, Bordatxo, Gabon, Kaiua, Koasta, Kolon Txiki, Loretxu, Salatxo, Sarasua, Gure Txoko eta Tragoxka. Abenduan ez da pintxo-txikiteorik izango.

### Ikastaroak

■ Ostargi eskulan taldearen ikastaroak: jantzizigintza, brodatuak, olio pintura edo akrilikoa, ehoziri-lanak, patchwork-a edo kakorraz-lanak. 09:30ean edo 15:00etan. Izena emateko Kultur Etxean Ostargik duen lokaletik pasatu ordutegi horretan.

### Euskara

■ Urriaren 10era arte, Mintzlagun egitasmoan izena emateko epea. Euskaraz dakiten pertsonak euskara ikasten ari direnekin astean ordubetez hitz egiteko saioak. Urola Kostako AEK euskaltegietan eta Zarauzko Udal Euskaltegian; ikastetxeetako idazkaritzetan; telefonoz: 94313 01 75 zenbakian; eta e-postaz: urolakosta@aek.org helbidean.

### Musika

■ Urriaren 12an. Folckore taldearen kontzertua eta DJ festa (DJ Lizarriturri doktorea eta DJ Elektropeña. 23:00etan, Txalupa tabernan.

### Ipuin kontalaria

■ Urriaren 16an. Ines Bengoa ipuin kontalariaren saioa umeentzat. 18:00etan, Udal Liburutegian.

### Irteera

■ Urriaren 25ean, Zaharren babeslekuak antolatuta, Arantzazura irteera. Irteera 09:00etan, Donostia alderako autobus geltokian. Sindika jatetxean hamaiketako, meza Arantzazuko basilikan eta bazkaria Zestoako Arozena jatetxean. Txartel salmenta: urriaren 25ean, 16:00etatik 18:00etara, Zaharren Babeslekuan.

# IKASTURTE BERRIA

## Hasiera Urriaren 1ean

### HAURREN IKASTAROAK

*Haurtxoen igeriketa*

*Haurren igeriketa*

*Judo*

*Karate*

*Gym - jazz*

### HELDUEN IKASTAROAK

### GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

*Acquaerobik*

*Aerobik*

*Fisio - osasuna*

*Gihar - tonic*

*Edadetuen mantenimentua*

*Circuit training*

*Pilates*

*Padel*

*Spinning*

*Yoga*

**INFO + 943 89 44 28**

